

### 1.- Gaixotasun edo istripugatiko Lizentzia. (41. art.)

- Lanerako Ezgaitasun Iragankorrean emandako lehengo hiru hilabeteetan lansariaren % 100 kobratzen da, aparteko pagak eta gaixoaldian gertatutako lansari gehikuntzak barne.
- Ezgaitasunak iraunez gero, hiru urte bakoitzeko hilabete bat gehiago %100 kobratzen.

### 2.- Amatasungatiko lizentzia: erditzea, adopzioa edo familian hartutakoa (adoptatu edo adoptatu aurretik) (42.1 eta 42.2 art.)

- **Iraupena:** 17 aste  
**garaiz aurreko erditzea:** 18 aste  
**Erditze anizkoitza:** 2 aste gehiago seme-alaba bakoitzeko, 2.etik aurrera..  
**Garaiz aurreko erditzea edo ospitaleratzea:** ospitalean alta hartzen duen egunetik aurrera konputatuko da.  
**sei urtetik beherako ume bat edo urte gehiago izan arren ezgaitu, elbarri edo txertatzeko arazoak dituen umea adoptatu edo hartzeagatik:** 19 astebete
- **Noiz:** umea jaio osteko 6 asteak, etenik gabe, amak hartu beharko ditu nahitaez atsedenerako. Gainontzekoak nahi denean. Aitak lizentziaren zati bat har dezake bai aldi berean bai ondoren. Ama hilez gero, eskubidea, osoaz edo zati batez, aita baliatu ahal da. Enpresarekin bat etorrita, aldi partzialetan hartu ahal zango da
- Lansariaren %100 kobratzen eta antzinasunerako aintzat hartzen da. Lizentzia oporraldiaren aldi berean gertatzeak ez ez du suposatzen oporradia (abuztua gehienetan) xurgatzen denik.
- **Sei urtetik beherako ume bat do urte gehiago eduki arren ezgaitu, elbarri edo txertatzeko arazoak dituen ume bat adoptatu edo hartu:** ebazpen administratiboa edo judizialek sortzen da, salbu eta adopzioa nazioartean egiten bada eta gurasoek adoptatuaren herrira joan behar diren, kasu honetan ebazpen eguna baino lau aste lehenago hasi ahal zango da.

**Oharra:** Langileen Estatutuan jasotzen da honakoa: jaioberriaren ospitaleratzea 7 egun baino gehiago luzatzen bada, baimena ere luzatuko da, umea ospitalean dagoen bezainbesteko egunez, eta gehienez hamahiru aste bete arte..

### 3.- Edoskitzegatiko lizentzia. (42.3 art.)

- 9 hilabete baino gutxiagoko haur bat artatzeko, egunero ordubete irteteko eskubidea. Ordu hori bi zatitan izan daiteke.

- Aldia eta ordutegia zehaztea langileari dagokio. Bere lanaldia ordu erdi gutxitu dezake
- Amak , horren lekuan ordaindutako bi aste gehiago har dezake, amatasungatiko lizentziaren ostean. Edoskitzegatiko bi asteok
- oporraldiaren aldi berean gertatzeak ez ez du suposatzen oporradia ( abuztua gehienetan) xurgatzen denik .
- Erditze anizkoitza: proportzioan luzatuko da baimenaren iraupena.

#### **4.- Aitatasunagatiko baimena.( 44b ) eta aitatasunagatiko kontratuaren etenaldia ( 43 bis art.)**

- **Aitatasunagatiko baimena.:** Jaiotza, adopzioa edo harreragatik. Aitak 5 egun naturaleko baimena dauka. Jarraian edo zatituta har daitezke baina haurra jaiotze edo etxera heldu eta ondorengo lehen 15 egun barruan.

Zesareaz erdituz gero bi egun gehiago

- **Aitatasunagatiko kontratuaren etenaldia**

**Iraupena:** langileak kontratua eteteko eskubidea izango du hamahiru egunez jarraian, eta, erditze, adopzio edo harrera anizkoitzen kasuan, bi egun gehiago hartu ahal izango du bigarrenaren osteko haur bakoitzeko. 44 b artikuluan erregulatutako baimenarekin gehitu daitezke Kontratuaren etenaldia 20 egunera arte luzatuko da jaiotza, adopzioa edo etxeratzea ondoko hiru kasu hauetan:

- a)** Jaiotza, adopzioa edo harrera familia ugari batean ematen denean. Alde horretatik, bi haur bere kargura dituzten guraso bakarreko familiak familia ugartzat hartuko dira.
- b)** Jaiotza, adopzio edo harrera berriarekin familiak izaera hori hartzen duenean.
- c)** Familian ezindu bat dagoenean.

**Noiz:** Arestian aipatu 5 egun naturaleko aitatasunagatiko baimena amaitzen denetik amatasunagatiko 16 asteko kontratuaren etenaldia amaitu arte edo etenaldi hau amaitu eta berehala.

#### **5.- Norbera ezkontzegatiko baimena. ( 44.a art.)**

- 15 egun natural

**Oharra:** Ideologia-bazterketa dela eta, gure lan-hitzarmenean ezkontzegatiko baimena ez da onartzen elkarbizitza kasuetan, irakaskuntza publikoan gertatzen denaren aurka.

#### **6.- Ahaideen ezkontzegatiko baimena. (44.g art.)**

- Egun 1 bigarren mailara arteko ahaidea izanez gero .

**7.- Ahaidea hil, istripuz zauritu, larriki gaixotu edo ospitaleratze nahiz kirurgi ebakuntzagatiko baimena. (44c art.)**

- 3 egun gertakizunetik 24 ordu lehenago edo ostean (akordio bada izan ezik) odolkidetasun, ahaidetasun edo bizikidetasuneko bigarren mailara arteko ahaidea bada.
- Lurralde historikotik kanpo irten behar baldin bada, 2 egun gehiago.
- 3 eguneko baimena ahaideak ospitaleratze gabeko kirurgia ebakuntza izanez gero.

**8.- Norberaren kontuak edo publikoak egiteko baimena. (44.h art.)**

- Behar duen beste denbora lan-orduetatik kanpo ezin bada (notaria, esaterako)

**9.- Ohiko bizilekua aldatzeko baimena. (44.f art.)**

- Egun bat.

**Oharra:** Erroldatze aldaketarekin justifika daiteke

**10.- Eginkizun sindikalak egiteko (Langileen estatutua, liberazioen hitzarmena.)**

- **Ordezkaritza sindikalentzako ordutegi mailegua:** 100 langile baino gutxiago duten enpresetan, 15 ordu hilabeteko. 101 eta 250 langile bitartekoetan, 20 ordu hilabeteko. 250 langile baino gehiago dutenetan, 30 ordu hilabeteko.
- **Liberazio sindikalen hitzarmena.**
  - Ordezkaritza bakoitzak 2 ordu uzten ditu gure liberatuek erabil ditzaten. Ohiko bilerak egiteko goiz edo arratsalde bat daukagu. Sindikatuaren goreneko organo baten partaideak badira beste egun bat gehiago dauka. Harez gain programatutako prestakuntzarako ikastaroak egiteko beste 3 egun urteko

**11.- Hobekuntza ikastaroengatiko baimena (47 art. )**

- Lanordutzat hartuko da, eta ordaindu egingo da, titularrak hori onetsiz gero. Langileak bekaren bat badauka, titularrak lansaritik kendu diezaioke diru kopuru hori.
- IRALE edo administrazioak % 100 ordaindutako ikastaroetan onartua izanez gero beharrezko baimena emango dio titularrak
- Ikastaroa titularrak proposatutakoa edo bi aldeen arteko akordioaren ondoriozkoa bada, matrikularako, trasladoa, egonaldia edo dieta eskubidea.

**12.- Azterketak egiteko lizentzi (Lanbide-mailako titulua lortzeko ). ( 48 art.)**

Egun 1 deialdi ofizialeko azterketa bakoitzerako. 3 egun naturalekoa 150km-tik gorako bidea egin behar izanez gero. Egiaztatuak izan behar dira.

**13.- Lanbide Hobekuntza-ikastaroak egiteko eszedentziak . ( 54 eta 56 art.)**

- Ikasturte osoagatik, lansaririk gabe, baina antzinatasuna zenbatuko zaio. Ikastetxean 5 urtetik gora etengabe lanean izatea beharrezko da. Itzulera automatikoa eta egiaztatu egin behar da
- Urtea baino gutxiagokoa bekak, ikasketa-txangoa edo espezialitateari berariaz dagozkionak badira. Zenbatu egiten da antzinatasuna eta egiaztatu behar da.

**14.- 8 urte baino gutxiagokoa edo ezgaitua seme-alabak zaintzeko; edo odolkidetasun bigarren mailara arteko senitartekoak zaintzeagatiko lanaldi-murrizketa (46 art.)**

- Lansaria eta lanaldiaren arteko murrizketa proportzionala; 1/8 eta 1/2 bitartekoa .
- Orduategia eta baimenaldia zehaztea langileari dagokio.
- Ohiko lanaldiari itzuliko den eguna baino 15 egun lehenago jakinarazi behar da.

**15.- Kontsulta edo tratamendu medikuak izateko baimenak. ( 44.e eta 44.d art.)**

- Haurdun daudenentzat jaio aurreko azterketak eta erditzerako prestatzeko saioretara joateko... ( 44.e art.)
- Mediku kontsultarako: laneko orduen barruan bada behar-beharrezko gertatzen den denborako eta egiaztagiria aurkeztu beharko da. (44.d art.)

**16.- Norberaren zereginagatiko ordaindu gabeko baimena . ( 45. art)**

- 15 egun eska daitezke, lansaririk gabe eta 5 egun lehenago abisatu behar da.
- Baimena eman beharko diote, gozaten ari diren langileen kopurua %5etik gorakoa ez bada

**Oharra.** Soldatarik gabeko egunak dira, baina Gizarte Segurantzako kotizazioak mantentzen dira. 15 egun arte luzatu daiteke, baina ez dira jarraian hartu beharrik, hau da, astebete disfrutatzeko 5 egun baino ez dira hartu behar

**17.- Borondatezko eszedentzia . (52 eta 53 art.)**

- Gutxienez urtekoa eta gehienez 5 urtekoa. Lehenengo bietan lanpostua gordetzen da. Eta hurrengo hiruretan lanpostura itzultzeko lehentasunezko eskubidea dauka.
- **Baldintzak:** urte beteko antzinasuna eta aurreko lau urteetan eszedentziarik hartu gabe. Idatzi eskatu, bi hilabete aurretik gutxienez.
- **Itzultzeko:** 3 hilabete lehenago abisua eman, bestela lanpostua ez da gordetzen.

**18.- seme-alabak, ezgaituak edo odolkidetasun bigarren mailara arteko senitartekoak zaintzeagatiko eszedentzia (55 art.)**

- Hiru urterako seme-alaba bakoitzeko amatasuna baja bukatzen denetik hasita , edoskitzailea barne.
- Ondorengo seme-alabek beste eszedentzia bat hartzeko bidea emango dute.
- Amak edo aitak eska dezake eta antzinasuna zenbatuko zaio eta lanpostura itzultzeko eskubidea izango du.

**19.- Nahitaezko eszedentzia Excedencia forzosa. ( 50 eta 51 art.)**

- Lanpostua gordetzeko eskubidea eta antzinasuna zenbatzen da.  
**Kasuak:** Kargu publikorako izendapena, funtzio sindikalak egiteko, gaixotasunagatik Ezgaitasun iragankorrean egotea, odol, ezkontza-ahaidetasuneko edo bizikidetasuneko bigarren mailara arteko senitartekoak zaintzea ( urte betekoa gehienez).

**20.- Zati batez ordaindutako baimena – Urte sabbatiko- (82. art – V eranskina)**

- Elkarren segidako 5 urteko iraupena edo aplikazioa du. Baimenak irauten duen lehengo 4 urteetan lanaldi osoan lanean eta bosgarren urtean libratu egingo da eta 5 urteotan lansariaren %84 kobratuko da.

***Baldintzak:***

- Gutxienez 5 urteko antzinasuna
- Gutxienez lanaldiaren %75ekoa
- %3k baino gutxiago direnean baimenaz baliatzen ari direnak